Ekainaren 13ko hauteskundeak ◆ Balorazioak

Gaztelak Trebiñoko emaitzak onartzea espero dute konderriko hautagai garaileek

Lan talde bat eratuko dute bi udalek, Bruselari garapenerako laguntzak eskatzeko

Felix Iriarte / **Gasteiz**

Konderriko bi udalak (Trebiño eta Argantzun) enklabea Araban sartzearen aldeko zerrenden alde azaldu dira, PPren proposamenaren aurka. Emaitza horrek abian jarriko du Trebiño Araban sartzeko prozesua, eta bi udaletako zinegotzi independenteek eta alkateek emaitzak onartzeko eskatu diete Gaztelako agintariei.



JOSEBA OLALDE

Trebiñoko eta Argantzungo alkateak eta zinegotziak konderriko auziaz jardun ziren atzo Gasteizen.

HISTORIKOTZAT jo dute Juan Carlos Aguillok eta Alfredo Oraak —hurrenez hurren Trebiñoko eta Aragantzungo alkateak izango direnak, gehiengo absolutoz irabazi dituztelako hauteskundeak— hautagai independienteen garaipena. Izan ere, Trebiñon PP izan da nagusi orain arte, eta konderria Araban sartzeko ateak itxi zituen horrek.

Gaztelako agintariek emaitzak onartzea exijitu dute Trebiñoko agintariek. Gogora ekarri dute Angel Acebes PPko Administrazio Publikoetako ministroak esan zuela aintzat hartuko zituela Udal hauteskundeen emaitzak konderriaren geroa erabakitzeko, eta orain hitza ez jateko eskatu diote Oraak eta Aguillok.

Burgosko Diputazioa PPren esku egongo da, eta baliteke Araban ere PPk agintzea. Trebiñoko alkateek gogora ekarri dute Ramon Rabanerak (Arabako Diputaziorako PPren hautagaia) beti defenditu duela Trebiñoren arabartasuna, eta, halaber, jakinarazi dute berak adierazi zuela «errazago» izango zela auzia konpontzea Burgosko eta Arabako Diputazioetan PPk aginduko balu. Hitz horiek oraindik gogoan dituztela adierazi zuten atzo.

«Ez da PPren kontrako auzia»

Auzia ez dela PPren kontrakoa azpimarratu zuten Oraak eta Aguillok. Izan ere, hauteskundeetan garbi geratu da «PPko botoemaile asko» Trebiño Araban sartzearen alde daudela. Hori frogatzeko, esan zuten PPk Europako hauteskundeetan Udal hauteskundeetan baino boto gehiago izan dituela, hau da, batzuek PP bozkatu dute Europarako eta independenteen zerrenda Udal hauteskundeetan. Halaber, jakinarazi dute «ehunka» boto erreferenduma aldarrikatuz agertu zirela Burgosko Diputazioa osatzeko hauteskundeetan. Gainera, alderdi abertzaleek Europarako lortutako boto kopurua «garrantzitsua» izan dela nabarmendu zuten. Datuek erakutsiko lukete, alkateentzat, gehienak Araban sartzearen alde daudela.

Konderriaren garapena ziurtatzeko urratsak egingo dituzte bi udalek. Kexu dira orain arte Burgosek baztertu dituelako, eta laguntzak zuzenean eskatuko dizkiete Bruselari. Bi udalek lan talde bat eratuko dute «arlo politikoan, sozialean eta kulturalean» batera jarduteko. «Gauzak azkartuko dira orain, bi udalek batera jardungo dugulako. Halaber, Gaztelak Trebiñoren arabartasuna ukatuz egin zuen txostenari erantzuna emango diote.

Programaren arabera, PSE-EAJ ituna babesteko prest dago IU Bilbon eta Arabako Batzar Nagusietan

Europa Press / **Bilbo**

EAJ-EA ETA PSE-EEren arteko ituna sustengatuko luke IU-EBk Bilboko Udalean eta Arabako Batzar Nagusietan baldin eta proposamenak «programaren araberakoak badira eta ez botere banaketaren araberakoak», adierazi zuten atzo talde honetako iturriek.

IU-EBren botoak erabakigarriak izan daitezke Bilboko Udalean. Bertan, EAJ-EA koalizioak eta PSE-EEk hamalau zinegotzi batzen dituzte eta gehiengoa izateko hamabost zinegotzi behar dira. Arabako Batzar Nagusiari dagokionez, EAJ-EAren hamasei batzarkidek eta PSE-EEren bederatzik boto bat behar dute gehiengoa lortzeko. Botoa IU-EBren bi batzarkideetatik lor daiteke.

Javier Madrazok zuzentzen duen taldeak ez du, oraingoz, gehiengoa duten alderdien deirik jaso. Hala ere, Gobernua osatzeko proposamenak «programaren» araberakoak izan daitezela exijitzen du IUk, «ezkerrekoak eta aurrerakoiak, eta ez boterearen banaketaren araberakoak».

Bestalde, ez dirudi IU-EBren zuzendaritzak orain dimitituko duenik, izan ere urrian alderdiak egingo duen Asanblea Orokorrean zuzendaritza karguak hautatuko dituzte.

EH: «Araba ez da kolore bakarrekoa»

F.I. / **Gasteiz**

ARABA-N PPk irabazi ditu hauteskundeak, Gasteizko Udalean bezala. Hala ere, horrek ez du esan nahi Araba «PPrena» denik. Iñaki Usategi biltzarkideak adierazi zuen gizartean sentsazio hori egon daitekeen arren, egia beste bat dela; Araba ez dela «kolore bakarrekoa» alegia.

EHk bi alkatetza lortu ditu, Laudion eta Legution, eta zenbait herri garrantzitsutan bigarren alderdia izatea lortu du, Amurrion esaterako. Horrek guztiak erakusten du EH «erreferentzia» bilakatu dela Araban eta herritarrek EHren mezua «onartu» egin dutela.

Zinegotzi kopurua 20rekin gizendu du koalizio abertzaleak, eta biltzarkide kopurua %50 gehitu du. Orain 56 zinegotzi, bi alkate eta sei biltzarkide izango ditu. Halaber, 28 herritan izango du ordezkaritza, lehen baino zazpi gehiagotan, eta 13.000 boto gehiago pilatu ditu, 21.000 boto izan baititu. Datu horiek «oso positiboak» direla esan zuen Rakel Peña legebiltzarkideak.

Udalerrien Biltzarrean ia Arabako udal guztiak egotea ziurtatuko dute emaitzek. Izan ere, Gasteiz, Biasteri, Eltziego eta besteren bat kenduta, beste guztiak abertzaleen esku izango dira, eta, zinegotzi kopuruari dagokionez, bikoiztu egiten dute Lizarrako alderdiek. Usategik, bestalde, esan zuen PP Diputazioaren buru egotea kaltegarri izango dela, «ezetzaren frontea» eratuko duelako. Halaber, deklaratu zuen EHk «demokraziaren aldeko aliantzak» lagunduko dituela.



JOSEBA OLALDE

Iñaki Usategik eta Rakel Peñak EHren emaitzak aztertu zituzten.